



AIARALDEKO

HIZKUNTZEN MAPA



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

KONTSEILUA



ΔΥΡΚΙΒΙΔΕΔ

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

SARRERA	01
NONDIK DATOR EGITASMOA	02
PROIEKTUAREN HELBURUAK: ANIZTASUNA IKUSARAZI ETA KOMUNITATEA SARETZE	03
METODOLOGIA	04
PROIEKTUAREN FASEAK	05
ZEHARKAKOTASUNA ETA ELKARLANA: HERRI ETA ESKUALDE MAILAKO SAREAK	07
ETORKIZUNEKO PROIEKZIOA ETA HERRI CURRICULUMAREKIN LOTURA	08
ONDORIOAK: HIZKUNTZEK BATZEN GAITUZTE	09

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

SARRERA

Aniztasuna ez da soilik estatistika kontua, ezta erronka soilia ere. Aiaraldean, geroz eta nabarmenagoa da gure herrietan hitz egiten diren hizkuntza kopurua, eta horrek galdera ugari sortzen dizkigu: Zein hizkuntza bizi dira gure kaleetan? Nondik dator jendea? Nola hartu behar ditugu bestelako jatorria dutenak gure komunitateetan? Eta, batez ere, zer roletan kokatzen dugu euskara testuinguru honetan?

Galdera horiei erantzuteko sortu da Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa proiektua. Ez da datu bilketa hutsa: komunitatearen autoezagutza, elkarlana eta gogoeta sustatzea da helburua. Egitasmoak, beraz, gizarte kohesioa, inklusioa eta ikuspegi pedagogiko eta komunitarioa jorratzen ditu, euskaratik eta euskaraz abiatuta.

Teorikoki, egitasmo honek *ikaskuntza garrantzitsuena gertatzen den lekuan bertan kokatzea* proposatzen du, Paulo Freireren pedagogiatik hurbil. Freireren esanetan, hezkuntzak ez du ezagutza transmititu behar, baizik eta bizipen kolektiboak sistematizatu eta kritika sustatu, testuinguru soziala kontuan hartuta. Hemen ere, ikasleek ez dituzte kanpoko hizkuntzak ikertuko, beren etxeko eta auzoko hizkuntzak, parte diren errealitatean oinarrituta.

Gainera, proiektuak bat egiten du hizkuntza ekologiaren ikuspegiarekin (Haugen, Skutnabb-Kangas), hizkuntzak ez baitira lehiakide entitate itxiak, baizik eta kultura eta harreman sare baten parte, elkar eragin bizian daudenak. Euskara, kasu honetan, ez da gainetik ezartzen den norma, baizik eta josten duen haria, gainontzeko hizkuntzekin elkarriketan ari dena.

Horregatik, *Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa* ez da estatistika edo infografia hutsa izango: gizartearen ispilu bat izango da, non euskara eta beste hizkuntzak ez diren lehiakide, baizik eta elkar aberasten duten eguneroko tresna.

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

NONDIK DATOR EGITASMOA

Egitasmo hau ez da kanpotik etorritako ekimen bat, ezta instituzio baten agindupean sortutako proiektu planifikatu hutsa ere. Jatorrian, Aiaraldeko Euskaigintza Kontseiluaren (AHC) ekimena dago, eta, berez, hau da AHCk berak bultzatutako lehen proiektua. Hezkuntza Foroan proposatu zen, eskualdeko ikastetxe guztiak biltzen dituen gunean. Bertan sortu zen lehen hazia, eta hezkuntza komunitateak berak hartu du protagonismoa garapenean: ikasleak, irakasleak, familiak eta komunitatea osatzen duten bestelako eragileekin elkarlanean.

Horrek egitasmoari oinarri demokratiko, parte-hartzaile, lokal eta irekia ematen dio. Hots, ez da goitik behera etorritako plangintza bat, baizik eta tokiko beharrianetatik eta bizipenetatik abiatutako erantzun kolektiboa. Ez da itxia, baizik eta sormenari eta tokian tokiko ekarpenei lekua ematen dien egitasmoa da. Proiektu hau komunitatearen burujabetza pedagogikoaren adibide argia da, eta horrek koherentzia eta legitimazio sozial handia ematen dio.

Ikuspegi pedagogikotik, proiektua “komunitatearen jakintza”ren kontzeptuan oinarritzen da. Hots, hezkuntza ez dago soilik eskolako gelatan, baizik eta ikasleen familietan, auzoetan, harremanetan... Jakintza horri balioa ematea da proiektuaren helburuetako bat. Horregatik, parte-hartzaileek ez dute informazio objektibo bat jasoko; euren bizitzetako jakintza legitimatzen da hezkuntza-prozesuaren parte gisa.

Gainera, “behetik gora” ikuspegia, garapen komunitarioko metodologietan funtsezkoa den ikuspegia da. Herritarrak ez dira hartzaile huts, baizik eta proiektuaren diseinatzaile eta eragile aktiboak. Horrela, inplikazioa, motibazioa eta iraunkortasuna ziurtatzen dira, eta komunitatearen konpromisoa sendotzen da.

Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa, hortaz, ez da soilik proiektu bat: eskualde mailan bizikidetzatza linguistikoa lantzeko tresna demokratiko, hezitzaile eta elkarlanean oinarritua da. Komunitate batek bere burua hobeto ezagutzeko eta hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa kolektiboago, orekatuago eta bidezkoago baterako lehen pausoa da, euskaratik eta euskaraz.

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

PROIEKTUAREN HELBURUAK:

ANIZTASUNA IKUSARAZI ETA KOMUNITATEA SARETzea

Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa egitasmoak hainbat helburu estrategiko uztartzen ditu, hezkuntza arlokoak ez ezik, soziolinguistikoak, kulturartekoak eta komunitarioak ere badirenak:

- **Hizkuntza-aniztasuna ikusaraztea, ikuspegi positibo batetik.** Proiektuak Aiaraldeko hizkuntza-panoramaren argazki kolektiboa osatu nahi du. Aniztasuna aberastasun kulturala eta komunikazio-baliabide gisa ulertzen da, eta hizkuntzen arteko bizikidetzeta eta elkar ezagutza sustatzen du.
- **Euskararen ardatza sendotzea, hizkuntza-komunitatearen erdigunean.** Euskara ez da hizkuntza bat gehiago, baizik eta Aiaraldeko komunitatea ehuntzeko oinarritzko osagaia. Beste hizkuntzak aitortuz eta balioetsiz, euskararen funtzio integratzailea eta kohesionatzailea indartzen da.
- **Ikasleen kontzientzia kritikoa piztea.** Zer hizkuntza hitz egiten dira gure etxeetan eta kaleetan? Zer istorio daude hizkuntza horien atzean? Halako galderek ikasleen gogoeta sustatzen dute, eta ikasgelak elkarriketarako eta ulermen kolektiborako gune bilakatzen dira.
- **Komunitate kohesioa eta elkar ulertzea indartzea.** Egitasmoak familien eta herritarren arteko elkarriketa eragiten du, jatorri eta hizkuntza anitzeko bizipenetatik abiatuta elkar ezagutza, konfiantza eta harreman berriak bultzatuz.

Hau guztia Aiaraldeko Herri Curriculumaren baitan txertatuta dago. Proiektua ez da isolatua, AHCren parte da: lurraldearen ezagutza modu partekatuan eraikitzeko estrategia bat, eta ikasleen protagonismo aktiboaren bidez osatzen den transmisio-sare bizi bat.

Egitasmo honek euskararen sustapena eta elkarlana uztartzen ditu, eta aniztasunaren kudeaketa positibo eta eraikitzailea proposatzen du. Hezkuntza eraldatzailearen ikuspegiarekin bat eginez (Freire, Cummins), ikasleek euren esperientzietan oinarritutako ezagutza sortzen dute, parte hartuz, entzunez eta komunitatearekin elkarerraginean.

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

METODOLOGIA: BIZIPENETIK EZAGUTZARA, INKESTATIK GOGOETARA

Egitasmoaren abiapuntua xumea bezain esanguratsua da: ikasle bakoitzak inkesta labur bat beteko du, etxeko hizkuntzei eta senideen jaioterriei buruz. Bi galdera nagusiren bidez jasoko dira datuak:

- Zein hizkuntza dakizkitez zure etxekoek?
- Zein herrialdetan jaio dira zure familia-kideak?

Helburua, ordea, ez da soziolinguistika akademikoaren parametroetan kokatutako ikerketa tekniko bat egitea. Ez da estatistika hutsa, ezta erantzun zuzenen bilaketa ere. Aitzitik, proiektuaren xedea da ikasleen errealitatei abiatutako kontakizun kolektibo bat eraikitzea, non hizkuntzak ez diren informazio askeak, baizik eta bizipenak, istorioak eta harremanak.

Datuak ikasgelaz ikasgela bilduko dira, eta maila pedagogikoaren arabera landuko dira. Haur Hezkuntzan, kolore eta irudi bidez hizkuntzak identifikatzen ikasiko dute; Lehen Hezkuntzan, familien jatorriak eta hizkuntzak mapa eta marrazkiekin lotuko dira; DBHn eta Batxilergoan, ikasleek grafikoak sortuko dituzte, interpretazio kritikoa eta azalpen gaitasuna garatuz.

KRONOGRAMA

PROIEKTUAREN FASEAK

DATU BILKETA

HIZKUNTZAK ETXETIK
IKASTETXERA EKARRI
(2023-2024)

Lehen fasean, ikasleek etxeko hizkuntzak eta familia-kideen jaioterriak jasoko dituzte inkesta baten bidez. Galderak sinpleak dira, baina elkarrizketa pertsonalak eta belaunaldien arteko transmisioa bultzatzen dute. Etxean, gurasoekin edo aitona-amonekin hitz egin beharra dago, eta horrek hizkuntza propioei eta atzerrikoei buruzko gogoeta pizten du.

Ikuspegi pedagogikotik, fase honek ikasleen interesa eta parte-hartzea pizten du hasieratik, euren errealitatea ezagutzaren abiapuntu bihurtuz.

ARGAZKIA

ANIZTASUNAREN IRUDI
KOLEKTIBOA (2024-2025)

Hirugarren fasean, jasotako datuetatik abiatuta ikasleek hizkuntza-aniztasunaren "argazkiak" sortuko dituzte:

- Ikasgela bakoitzaren argazkia
- Ikastetxe mailakoa
- Herriko ikastetxeen bateratua
- Eskualde osokoa

Argazki hauek ez dira soilik taulak edo grafikoak: irudikapen simboliko eta narratiboak izan daitezke, hala nola muralak, bideoak edo ahozko kontakizunak. Horrela, datuek hizkuntza eta bizipen forma hartzen dute, eta ikasleek interpretazio kritikoa egin behar dute: zer esan nahi du gure herrian 14 hizkuntza egoteak? Zein da bakoitzaren presentzia eta ikusgarritasuna?

DATUEN ANTOLAKETA

IKUSGARRI BIHURTU (2024)

Bigarren fasean, jasotako informazioa excel edo libreoffice taulen bidez antolatuko da, ikasgelak eta mailak sailkatuta.

Informazioaren sistematizazio horrek aukera emango du ikusteko eta ulertzeko norberaren errealitatea komunitate zabalago baten barruan dagoela.

Ekarpen bakoitza pieza bat izango da mapa kolektibo handiago batean. Eta prozesu honetan digitalizazioaren erabilera zentzuduna egiten da, ez teknologiarengatik, baizik eta datuen elkarlanean oinarritutako trataera ahalbidetzeko.

KRONOGRAMA

PROIEKTUAREN FASEAK

AURKEZPENAK

KOMUNITATEARI BEGIRA (2025)

Laugarren fasea da proiektuaren irekiera publikoaren une garrantzitsua. Orain arteko lana ez da gelako lau hormetan geratuko: ikasleek ekoitzitako ezagutzak eta interpretazioak komunitatearekin partekatuko dira, formatu eta espazio ezberdinetan.

Fase hau komunikazioaren pedagogia lantzeko aukera paregabea da. Ikasleek ez dute soilik aurkezten: narratzaile bihurtzen dira, ikusleekin konektatu behar dute, galderak aurreikusi eta mezu argia eraiki.

Gainera, aurkezpen hauek komunitateari begira eginda daudenez, gurasoek, auzokoek, udal ordezkariak edo herriko elkarteek ere parte hartu ahal izango dute entzule eta solaskide gisa. Aurkezpen bakoitza, beraz, gogoeta kolektiborako aukera bihurtuko da, hizkuntzen inguruko aurreiritziak apurtu eta ikusgarritasuna emateko.

ERATORRIAK

GALDEREZ SORTUTAKO IBILBIDE BERRIAK (2025-2026)

Behin argazkia osatuta, ikaskuntza berriak sortzeko gonbita egiten da. Hizkuntzen jatorria, migrazioaren zergatiak, hizkuntza-familiak, ahozko testigantzak, eta abar.

Fase honek proiektuaren izaera ireki eta malgua azpimarratzen du. Ikasleek galderak egin, hipotesiak sortu, elkarriketak prestatu eta eduki berriak sortu behar dituzte.

AHC-AN JASO

EZAGUTZA PARTEKATUA

BIZIA

ETA

Azkenik, jasotako eta sortutako guztia Aiaraldeko Herri Curriculumaren webgunean bilduko da. Ez da amaiara bat, etengabeko ezagutza prozesu baten etapa bat baizik. Edukiak moldatu, aurkezpenak partekatu eta beste komunitate batzuekin elkarbanatuko dira.

Fase honek, gainera, komunitatearen memoria kolektiboa osatzen laguntzen du, eta Herri Curriculumaren helburu nagusiari ekarpena egiten dio: Aiaraldeak bere burua ezagutzea, kontatu ahal izateko.

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

ZEHARKAKOTASUNA ETA ELKARLANA: HERRI ETA ESKUALDE MAILAKO SAREAK

Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa proiektuaren indargune nagusietako bat zeharkakotasuna da. Ez da gelan geratuko, ezta ikastetxe bakar batean mugatuko ere. Hezkuntza formala eta informala, ikasleak eta familiak, hezkuntza komunitatea eta herriko bestelako kolektiboak... guztiek izango dute zeregina egitasmo honetan.

Helburua ez da soilik hizkuntzak zenbatzea, baizik eta hizkuntzekin dauden pertsonak ezagutzea. Horrek eskatzen du komunitate osoaren inplikazioa eta ikuspegi sistemikoa.

Zer esan nahi du zeharkakotasunak praktikan?

- **Ikastetxeen arteko lankidetzak:** Proiektuaren une garrantzitsuetan, batez ere “argazkia” eta “aurkezpenak” faseetan, ikastetxeek lankidetzak aktiboak izango dute: materialak elkarbanatu, interpretazioak partekatu eta aurkezpen bateratuak prestatu. Honek, gainera, sare pedagogiko horizontal bat sendotzen du eskualde mailan.
- **Familiaren parte-hartzea:** Inkesta fasean, familiak euren hizkuntza eta jatorriaren inguruan hitz egin behar dute haurrekin. Elkarrizketa intergenerazionala sustatzen da horrela: aitona-amonek kontatu dezakete nola heldu ziren Euskal Herrira, edo zergatik galdu zuten hizkuntza bat. Familia horiek, gainera, proiektuaren aurkezpenetan eta emaitzen zabalkundean ere parte hartzaile izan daitezke.
- **Komunitate ezberdinen arteko ezagutza:** Hizkuntza ez dira hitzak bakarrik: giza komunitate biziak daude hizkuntza bakoitzaren atzean. Proiektuak aukera ematen du jatorri anitzeko auzokideekin harreman berriak sortzeko, elkarrizketak eginez, ahozko testigantzak jaso edo euren hizkuntza propioan “ongietorri” hitzak ikasiz.
- **Euskara, haria eta oinarri komun gisa:** Proiektuaren oinarria aniztasunaren aitortza bada ere, euskarak josten du ekosistema hau guztia. Ez nagusitasunez, baizik eta lotura eta komunikazio hizkuntza gisa, guztien artean eraikitzen ari garen komunitate euskaldun eta anitzaren zutabe bezala.

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

ETORKIZUNEKO PROIEKZIOA ETA HERRI CURRICULUMAREKIN LOTURA

Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa ez da proiektu puntual edo isolatu bat. Ez da amaierako txosten bat egiteko ariketa, ezta soilik datuak biltzeko eta aurkezteko baliabide bat ere. Aitzitik, egitasmo hau Aiaraldeko Herri Curriculumaren (AHC) lehen adar bizietako bat da, eta horrek ematen dio egiturazko balioa eta etorkizunerako proiektzioa.

AHCren arabera, lurralde batek bere burua ezagutzeko, transmititzeko eta berrasmatzeko behar duen tresna kolektiboa da Herri Curriculumak. Ez da testuliburuaren alternatiba hutsa, baizik eta lurraldearen jakintza propioa eta bizia jasotzen duen egitasmo partekatu bat: ikasleek, irakasleek, gurasoek, herriko eragileek eta herritarrek elkarrekin eraikitzen dutena.

Zein ekarpen egiten dio proiektu honek AHCri?

- **Ezagutza bizia jasotzen du, ikasleen eta familien eskutik:** Proiektuak Aiaraldeko hizkuntza-errealitatearen argazkia jasoko du, ez datu hotzen bidez, baizik eta bizipenetik, elkarrizketatik eta ikuspegi komunitariotik. Horrek ondare immateriala dokumentatzen lagunduko du.
- **Transmisiorako baliabide bihurtuko da:** Emaitzak AHCren webgunean argitaratuko dira, eta ikastetxeek, udaleku edo aisialdi taldeek edota euskara teknikariek erabilgarri izango dituzte baliabide didaktiko gisa: hizkuntza-aniztasunaren mapa, kontakizunak, aurkezpenak, testigantzak...
- **Berrikuntza irekia eta eguneragarria da:** AHC ez da egitura zurruna. Proiektu honen bidez, argitaratutako edukiak etengabe eguneratu eta aberastu ahal izango dira. "Mapa" ez da finkoa izango: bizirik dagoen dokumentua izango da, aldakorra, dinamikoki eraikia eta komunitatearen ekarpenez elikatua.
- **Autoezagutza eta berrasmatzea sustatzen du:** Herri Curriculumak ez du soilik iragana bildu nahi. Baita etorkizunaren eraikuntza kolektiboa sustatu ere. Hizkuntzen Mapa proiektuaren bidez, herritarrek aukera dute euren ingurunea berrikusi eta berriz definitzeko: zein hizkuntza hitz egiten ditugu? Zein da gure hizkuntza-nortasuna?

AIARALDEKO HIZKUNTZEN MAPA

ONDORIOAK: HIZKUNTZEK BATZEN GAITUZTE

Mundu geroz eta globalizatuagoan, aniztasuna ez da aukera bat, errealitate bat da. Eta aniztasun horren aurrean, bi bide daude: edo beldurrez begiratu eta hormak eraiki, edo jakin-minetik eta errespetutik begiratu, eta zubiak eraiki.

Aiaraldeko Hizkuntzen Mapa proiektuak bigarren bidea aukeratu du. Proiektu hau ez da hizkuntzak zenbatzeko ariketa soila: entzuteko ariketa bat da, aitortzeko eta partekatzeko espazio bat, eta harremanetarako abiapuntu bat. Ez da hizkuntza bakoitza bere lekuan jartzea, baizik eta hizkuntza guztiak gizarte berean txertatzea, bakoitzak bere balioarekin, eta euskara hari komun eta erdigune gisa josteari eutsiz.

Zer gertatzen da ikasle batek etxean amazigera entzuten duenean eta eskolan euskaraz ikasten duenean? Zer suposatzen du aitonak arabiera bakarrik dakien etxe batean hazteak, eta semeak DBHko aurkezpen bat euskaraz egiteak? Proiektu honek galdera horiek azaleratu nahi ditu, eta gizarte osoa gonbidatu elkarriketara.

Azken finean, hizkuntzak ez dira banaketa marra gorria, baizik eta elkar ezagutzeko gonbita. Eta Aiaraldean, hizkuntzek ez gaituzte zatitzen: hizkuntzek batzen gaituzte. Eta hori guztia, euskaratik eta euskaraz eginda.